

Gibraltar itsasarteko aszidiak.

Gibraltar itsasarteko uretan, Atlantiko eta mediterraneoak mareen soinuan dantzaten duten lekuan, aszidiek badakite korronte aberats hauei probetxua ateratzen.

Animalia hauek urokordatuena taldekoak dira, eta ornodunengandik oso gertu aurkitzen dira. Beraz, gure arbasoak dira eskala ebolutiboan.

Kordatu moduan definitzen dituzten ezaugarriak ez dira helduetan ageri, baina argi ikus ditzakegu bizitza epe labur bat aske pasatzen duten larbetan. Gero harrizko gainazal batean finkatzen dira, heldutasun fasea garatzeko.

Espezie guztiak sesilak eta iragazleak dira. Batzuek tegumentu batez estalitako eta zooide izeneko indibiduo ezberdinez osatutako koloniak eratzen dituzte.

Kolonien garapena urtaroen arabera da, eta ingurune baldintzen aldaketari erantzuten die.

Animalia hauek erakusten duten forma eta kolore aniztasun izugarriaren baitan, indibiduorik zaharrenak koloniarik osatzen ez duten espezieetakoak izan ohi dira.

Mediterraneoko aszidia gorria, *Halocynthia papillosa*, aszidia bakartien adibide dugu, inoiz ez du koloniarik osatzen. Zaku formako gorputza, kolore gorri-laranja deigarria eta itxura zimurtsua, ixten diren lau lobulu dituzten sifoiak oso nabarmenak dira, eta setaz estalitako ertzak dituzte.

Batzuk nahastezinak izan arren, aszidiak erronka handia dira zientzialari eta ikerlariarentzat, asko ezin baititugu begi hutsez ikusi, eta beharrezkoa da mikroskopioa erabiltzea bereizi ahal izateko.

Animalia hauen gorputzak kanpoko ingurunearekin komunikatzen duten bi sifoi ditu: ahoko sifoi ura sartzeko, eta atrioko sifoi kanporatzeko.

Aszidia gehienak hermafroditak dira, eta ernalketa beti da gurutzatua. Atrioko sifoiaren zehar kanpora botatzen dute esperma, eta obulua uretan edo beste aszidia baten barruan ernaltzen da. Hemendik bizitza askeko larba garatuko da, gainazalerantz igeri egingo du, eta 36 ordu baino gutxiagotan, hondora itzuliko da finkatzeko leku egoki baten bila. Orduan jasango du aszidia txiki bihurtuko duen metamorfosia.

Asexuak ere ugaltzeko, gemazio deituriko prozesuaren bidez; indibiduoaren zati bat banandu eta indibiduo berri bat sortzen da. Aszidia kolonialetan ohikoa da gemazioa, klabelinetan esaterako. Izaki eder eta arraroak dira, tunika gardena eta luzetarako marra distiratsuekin.

Klabeledinek ahoko sifoiatik faringerantz sartzen den ura iragazten dute, hemen pitzadura brankialek planktoneko organismoak atxikitzen dituzte, baina urari atriorantz pasatzen uzten diote, eta hemendik atrioko sifoiaren zehar kanporatu egiten da. Faringetik elikagaia liseri hodirantz pasatzen da. Honek U forma bereizgarria du; hestegorria goranzko adarra da, urdaila bihurtzea, eta hestea, kloakan amaitzen den beheko adarra.

Clabelina bakartiak aurki ditzakegun arren, elkarren artean konektatuak egon ohi dira gelatinadun estoloi batzuen bidez. Horrela, tamaina ezberdinetako indibiduo osatutako mordoak eratzen dituzte.

Korronte handiengandik babestuta egon ohi dira, baina hauen beharra daukate bizirauteko, beraien hurbilduko baitzikiete elikagaiak sesilak direnean. Horregatik, larbak, finkatzeko eta aszidia heldu bihurtzeko leku aleatorio bat aukeratzeko duenean, zorteak zehaztuko du bere etorkizuna, eta indibiduoak dituen bizitzeko aukerak.

Aszidiak itsas bentosaren pieza ederrak dira, eta beraien garapenean zehar, eboluzioko prozesu erabakigarri eta harrigarrietariko batzuk erakusten dituzte.